

Ricardo Hernani

# MENDIZALEAK ETA PAISAIA

*HEGAZKINA hodei hesian zehar doa eta euri fin baten azpian mendi berde sail bat ageri zaigu, Kantauri itsasorantz bere tolesdurak hara eta hona zabaldurik. Baserri-etxe barreiatuak, estu harrapaturiko haran eta arrantza portuak, eta harrizko multzo eskerga bat edo beste... lehenbizikoz bisitatzen gaituen arrotzaren begietan txundidura eragiten dutenak, agian tonu horiagoak irudikatu dituelako. Gainerakoontzat etxera itzultzea da.*

*Baldin aipuak jasotzen duen moduan, "gizakiaren egiazko aberria haurtzaroa bada", dudarik gabe haren parte berezko eta garrantzitsua da paisaia. Gizaki hura bilakatzen den gunea. Bizitzaren gorabeherengatik edo horretara beharturik, bere lurra utzi eta urteetara, hunkigarria gertatzen da hala egin zutenen ahotik haurtzaroko paisaien oroitzapena aditzea, lurraren nahiz itsasoaren usainaren deskribapen zehatza entzutea.*

*Berdea eta urdina. Begi-bistakoa da hobetsitako lur batean bizi garela, lur oparoa, emankorra. Azalera xume baten gainean, ura gailentzen da bizitza horren, paisaien, koloreen iturri sortzaile bezala. Denbora aurrera, oraindik ari gara ikasten ur hori jagoten, mimatzen, mendian behera jauzika abiatzen segi dezan, pazientzia etengabeaz zintzur eta harpeen sakona zizelatzen, udaberri oro ibarrak berriro berdetzen, karstean barnatzen, hezeguneetan gure fauna elikatzen, lurraldearen zati handia estaltzen duen oihana ureztatzen, bokaleetan aurrera itsasoratzen. Beste ur hauek dira, gaztunak, itsasaldea marrazten dutenak, flyscha laztantzen dutenak edo denboraren hasieratik uharteak setiatzen dituztenak. Ur hauek berak pertsonak milaka erakartzen dituzte beren ondora arrastirietan, labar nahiz hondartzetatik, itsasargi nahiz dikeen ondotik, ortzemuga mirestera.*

*Klimatologia ere anitza dugu. Bozkarioa eta barnebiltzearekin loturik, udaberria eta udazkena beren kolore ñabarduren eskaintza ugariaz, egunik emankorrenak eskaintzen digun uda, eta azkenik negua. Ura, berriz ere, elurraren itxuraz oraingoan, soil gorenak eta mendilerroen estalki, mendigune granitikoetara hurbiltzeko oztopo.*

*Herrialde magiko batean bizi gara. Nola esplika liteke bestela hain gune emankor batean basamortu bat aurkitu ahal izatea, hain geografia txikian paisaiaren zirrikituak bataiatzen eta blaitzen hiru hizkuntzaren iraupena?*

*Eta era honetako lur baten gainean, ezin falta zitekeen hartaz maiteminduriko herri bat. Eta honetan, atsedenik gabe bera ibiltzen duen erkidego mendizalea; paisaiak iradokitzen dizkigun era desberdinetan: oinez, igoka, eskien gainean, eskaladan...*

*Federazioaren bidez artikulaturiko erkidego hori osatzen dugun mendizaleotako bakoitzak, geure zaletasunaren hasierako garaitik, maiz haurtzarotik, geure paisaiarekin maitasunezko erlazio sendo bat izaten dugu. Beharbada arrazoi horrengatik, ez zaigu zail gertatu pasioz deskribatzen diguten artikulugileak aurkitzea; nahiz eta gehienbat izen berriekin lortzeko erronka hartu genuen, ale hau argitaratzen direnetarik %80. Honela, eta adibide gisara, Baztanez maiteminduríк dagoen Jaime dugu; David, enparaukoentzat iluntasuna baizik ez den lekuan barnatzen, Eduardok mendizintzurrekin duen harreman pertsonala, idoiekin Joseanek duena, Azkue anaiena flyscharekin, Antonena Izaro uhartearekin, Imanol eta Jose Luis argazki kamara beti aldean...*

*Baina askoz gehiago daude, lerro hauen irakurketan ari zareten guztiok, kolaborazioak bidaltzeko gonbitea luzatzen dizuegula. Hauek berak egiten baitute Pyrenaica.*

*Itz.: Patxi Galé*

# MONTAÑEROS Y PAISAJE

EL avión atraviesa la barrera de nubes y bajo una suave llovizna aparece una sucesión de montañas verdes plegándose por doquier hacia el Cantábrico. Caseríos dispersos, valles y puertos pesqueros encajonados, y alguna que otra mole rocosa... sobre una tierra arrugada, que sorprende a los ojos del extraño que nos visita por vez primera quizás imaginando tonos amarillos. Es el regreso a casa para los demás.

Si como recoge la cita, "*la infancia es la verdadera patria del hombre*", el paisaje es sin duda parte inherente y primordial de ella. El marco en el que se desarrolla la misma. Años después de haber abandonado su tierra por el devenir de la propia vida o por haberse visto obligados a ello, resulta conmovedor escuchar de labios de quien lo hizo la evocación de los paisajes de su niñez, su detallada descripción del propio olor de la tierra o el mar.

Verde y azul. Resulta obvio que vivimos en una tierra privilegiada, prolífica, fecunda. Sobre una superficie modesta, el agua se conforma como la fuente generadora de dicha vida, de los paisajes, de los colores. Con el paso del tiempo todavía estamos aprendiendo a cuidarla, a mimarla a fin de que siga saltando montaña abajo, esculpiendo con infinita paciencia el interior de foces y cavernas, reverdeciendo cada primavera los valles, infiltrando el karst, alimentando nuestra fauna en los humedales, regando la masa forestal que cubre buena parte del territorio, desembocando por los estuarios en el mar. Son estas otras aguas, las salinas, las que dibujan la costa, acarician el flysch o asedian desde tiempo inmemorial las islas. Las mismas aguas que al atardecer atraen a miles de personas a su vera, a escudriñar el horizonte desde acantilados y playas o junto a faros y diques.

También nuestra climatología resulta variada. La primavera y el otoño con su amplio abanico de tonalidades asociados a la alegría y el recogimiento, el verano que nos proporciona las jornadas más generosas, y por último el invierno. De nuevo, el agua, esta vez en forma de nieve, cubriendo los rasos de altura y las sierras, dificultando el acceso a los macizos graníticos.

Vivimos en un país mágico. ¿De qué otra manera puede explicarse si no la existencia de un desierto en tan fértil marco, la pervivencia en tan pequeña geografía de tres lenguas bautizando e impregnando los vericuetos del paisaje?

Y sobre una tierra de dichas características, no podía faltar un pueblo enamorado de ella. Y en este, una comunidad montañera recorriéndola sin descanso; de las más diversas formas que nos permite el paisaje: caminando, trepando, esquiando, escalando...

Cada uno de nosotros, de los montañeros que formamos dicha comunidad, articulada a través de la federación, mantenemos desde el inicio de nuestra afición, a menudo en la niñez, una intensa relación de amor con nuestro paisaje. Seguramente por este motivo, no ha resultado difícil encontrar autores que nos lo describieran con pasión; y ello a pesar de que nos habíamos propuesto lograrlo mayoritariamente con firmas nuevas, el 80% de las que publican en este número. Así, y tan sólo a modo de ejemplo, está Jaime, enamorado del Baztán; David, internándose allí donde para los demás sólo queda oscuridad, la relación personal de Eduardo con las foces, la de Josean con las lagunas, la de los hermanos Azkue con el flysch, la de Anton con la isla de Izaro, Imanol y José Luis siempre con la cámara al hombro...

Pero hay muchos más, todos aquellos que estáis leyendo estas líneas y a los que os invitamos a enviarnos vuestras colaboraciones. Ellas hacen Pyrenaica.